

2015eko kanpainarako eta hurrengoetarako, baldintzen esparruaren barruan, eta abenduaren 19an argitaratutako 1078/2014 Errege Dekretu berriaren arabera, zenbait betebeharrak aldatzen dira ibai ertzetik babes zerrendetan nekazari eta abeltzainek egin ditzaketen jardunei dagokienez.

Babes zerrenda horiek egon behar diren ibilguak ez dira aldatzen beste urte batzuekin alderatuz, eta nola eskualdeko nekazaritza bulegoetan hala helbide honetan kontsultatu daitezke:

http://www.alava.net/cs/Satellite?c=Page&cid=1223999709710&language=es_ES&pagename=DiputacionAlava%2FPPage%2FDPA_contenidoFinal

Ibilgu horietan 3 metroko zerrenda utzi beharko da, orain arte egin den bezalaxe, arrisku lurzatietan, eta metro 1eko zerrenda arriskurik ez dagoen lurzatietan, baldin eta ez badago nekazaritza ekoizpenik, salbu eta lehendik dauden zurezko laboreak; hain zuzen ere:

- Zerrenda horretan ezin izango da erein inolako laborerik, eta bai egon ahalko da berezko landaredia.
- Zerrenda horretan ezin izango da bota inolako ongarri kimiko edo organikorik.
- BERRITASUNA. Zerrenda horretan mantentze, larratze edo mozte lan mekaniko azalekoak egin ahalko dira, urteko edozein sasotian, ugal ez daitezen laboreentzat arriskutsuak diren izurriak eta gaixotasunak.

Ibilgu horietan bertan, nola arrisku zonaren barruan hala kanpoan, ezin izango da gai fitosanitariorik bota 5 metroko zerrenda batean; edonola ere, baliteke gai fitosanitarioen etiketak muga handiagoa jartzea.

Gainera, arau orokor gisa gogorarazten da ezen ur ibilbideetatik hurbil dauden lurzatietan errespetatu egin beharko direla *Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodean (ekainaren 7ko 112/2011 DEKRETUA)* arrisku zonatik kanpo kokatuta dauden lurzatietan ongarriak botatzeari buruz ezarritako betebeharrak, eta berdin errespetatu beharko dira *Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuaren eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai sailburuaren 2008ko urriaren 15eko AGINDUan* azaldutako betebeharrak, arrisku zonan kokatutako lurzatietan.

ORO HAR, NOLA ARRISKU ZONAN HALA HANDIK KANPO GAI FITOSANITARIOAK BOTATZEN DITUEN OROK 5 METROKO ZERRENDA ERRESPETATU BEHARKO DU ETA EZ DU BOTAKO GAI FITOSANITARIORIK TARTE HORRETAN.
--

